



Donostian, 2019ko uztailaren 12an

Guraso agurgariak:

Gutun honen bidez 2019-2020 ikasturterako eskola antolakuntzaren berri eman nahi dizuegu.

Aurten izan dugun lekualdatzearen ondorioz, egoitza desberdinetako helbide eta komunikazio bide nagusi berriak hauek dira:

<b>HH</b>	VILLA SOROAKO egoitza.
Ategorrieta, 24 - 20013 Donostia. Tf.: 943287232 - E-posta: <a href="mailto:idadkaritzahh@zurriolaikastola.eus">idadkaritzahh@zurriolaikastola.eus</a>	
<b>LH1 eta LH2</b>	JOSEFINETAKO egoitza.
Rodil, 45 - 20013 Donostia. Tf.: 943937743 - E-posta: <a href="mailto:idadkaritzalh@zurriolaikastola.eus">idadkaritzalh@zurriolaikastola.eus</a> *Idazkaritza Hurrako egoitzan egongo da	
<b>LH3-LH6</b>	HURRAKO egoitza.
Indianoene, 1 - 20013 Donostia. Tf.: 943937743 - E-posta: <a href="mailto:idadkaritzalh@zurriolaikastola.eus">idadkaritzalh@zurriolaikastola.eus</a>	
<b>DBH eta BATXILERGOA</b>	HURRAKO egoitza.
Indianoene, 1 - 20013 Donostia. Tf.: 943272587 - E-posta: <a href="mailto:idadkaritzabh@zurriolaikastola.eus">idadkaritzabh@zurriolaikastola.eus</a>	
Etapaz gaineko mezuetarako e-posta: <a href="mailto:zurriola@ikastola.eus">zurriola@ikastola.eus</a>	

Bide batez, gogorarazten dizuegu, urtean zehar Ikastolak gurasoekin izango duen komunikazio bide nagusia ostiraletan bidaltzen den **ATARIA** astekari digitala dela. Bertan, aurreko astean izandako ekintza nagusien berri emateaz gain, hurrengo egunetan izango diren gertakariak eta bestelako ohar garrantzitsuak agertzen dira. Hori dela eta, oso garrantzitsua da behar besteko arreta ematea asteroko komunikabide honi. Informazio hori guztiari webguneko **KOMUNIKAZIOA** atala gaineratu behar zaio, etengabeko kontsultagai gisa.

Hemen ikasturte honetan Batxilergoko ikasle eta familiei dagozkien zehaztasunak:

## **IKASLEEN ORDUTEGIA**

<b>IRAILAREN 6a</b>	Aurkezpen eguna	11:00
<b>IRAILAREN 8tik EKAINAREN 19era</b>	Egunero	8:00-15:00

**EGUTEGIA 2019/2020  
BATXILERGOKO 2. MAILA**

IRAILA						
		4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

URRIA						
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

AZAROA						
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

ABENDUA						
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

URTARRILA						
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		








OTSAILA						
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	

MARTXOA						
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

APIRILA						
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

MAIATZA						
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

EKAINA						
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

	Ikasturte hasiera
	Jai egun, asteburu eta oporraldiak
	Ebaluazio azterketak
	Errekuperazioak
	Ohiko deialdiko azterketak
	Aparteko deialdiko azterketak
	lazko pendienteak

**2019-2020 IKASTURTEKO TUTOREEN ZERRENDA**

## **BATXILERGOA**

<b>1A:</b> AITOR ARTOLA	<b>1B:</b> AMAIA DONES	<b>1C:</b> ITSASO AREIZAGA
<b>2A:</b> ARANTZA BARANDIARAN	<b>2B:</b> BEGOÑA ZABALETA	<b>2C:</b> JOSEMARI ARANBURU

## **ZERBITZUAK**

### **JANGELA:**

Jangelako zerbitzua irailaren 9tik maiatza amaiera bitartean izango da. Batxilergoko ikasleek bigarren jolas-garaian bazkalduko dute.

### **ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK:**

Ikasturte honetako musika eskolako jarduerak jarduerak irailaren 23ko astean hasiko dira. Bera Berakoak berriz irailaren 9ko astean.

## **IDAZKARITZAKO OHARRAK**

### **ERREZIBOAK:**

- Gogorarazten dizuegu ikastolari egiten zaion laguntzari dagozkion 10 errezibo pasatzen ditugula. Batxilergoan 108,34€/hileko dira, eta hilaren 5ean kobratuko ditugu.
- Jangela zerbitzuaren batxilergoko erabiltzaileei 9 errezibo pasako zaizkizue. Lehena irailaren 15ean eta hortik aurrera, beste guztiak, hilaren 5ean.
- Zerbitzuren batean baja eman nahi izanez gero, aurreko hilabetea amaitu aurretik egin beharko da. Ez da hilabete bakarreko bajarik onartuko, ez eta bajak eta altak ematen aritzea ere.
- Irteeretan aldeztu aurretik kontratatutako zerbitzuen kostua gelakide guztien artean banatuko da (bertan ordaindutakoa irteerako parte hartzaileek soilik ordainduko dute).
- Eskola-asegurua martxoan kobratuko dizuegu eta materiala apirilean.

### **TESTU LIBURUAK:**

**Eskaera ikastolan egin baduzue, liburuak irailaren 6an jaso beharko dituzue ikastolan honako ordutegian: 12:00etatik 12:30etara.**

Liburuak jasotzeko **eskaera agiria eta diru sarrera egin izanaren agiria ekarri beharko dituzue ezinbestean.** Liburuaren ordainketa abuztuaren azken astean edo irailaren lehen egunetan egin ezazue, arren ondorengo kontu korrontean: ES9620955206071061226782 (Azalpenean ikaslearen izena-liburuak-maila jarritz).

Eskola-agenda ikastolako lehen egun horretan banatuko zaie eta errezibo bidez kobratuko zaizue.

**DATUEN EGUNERATZEA:**

Edozein aldaketa esanguratsu (e-posta, etxeko helbidea, telefonoa, kontu korrantea, eta abar...) idazkaritzan aipatzea eskatzen dizuegu, aukeran idazkaritzako helbide elektronikoetara idatziz

**GURASOENTZAT EUSKARAKO KLASEAK:**

Datorren ikasturtean ere, seme-alabak ikastolan dauden bitartean, gurasoentzat euskarako klaseak antolatuko ditugu Hurrako egoitzan. Irailean honen inguruko informazioa bidaliko zaizue.

**BERRESKURATZE AZTERKETAK (ERREKUPERAZIOAK):**

Batxilergo 1. mailako gai pendienteen edo gai aldaketa eskatu dituztenen azterketak IRAILAREN 4 eta 5ean izango dira:

<b>Irailak 4 (asteazkena)</b>	9:00	Gaztelania Matematika Zientziak Matematika Giza Zientziak
<b>Irailak 5 (osteguna)</b>	9:00	Filosofia Ingelesa

**OHARRA:**

Ikasleek lehen egunean tutoreei NAREN fotokopia eman beharko diete. Familia ugaria izanez gero, Familia-liburuaren fotokopia ere ekarri behar dute.

Besterik gabe, agur bero bat eta opor onak igaro ditzazuela

ZUZENDARITZA

---

Ohar honen bertsio elebiduna [bertan](#) duzue irakurgai.  
La versión bilingüe de este documento está disponible [aquí](#).